



Genero-mainstreamingaren praktika toki-garapeneko agentzietan

Donostia, 2007ko azaroaren 27an



>> KIDEITU



A.- SARRERA

“Egoera bat bere ezberdintasunengatik bidezkoa ez denean, ez da bidezkoa izango ez balitz bezala analisi bat egitea”

(Milagros Rubio)

GARAPEN

Euskadiko toki-garapenerako agentzien lan-prozesuak ondo bereiztutako faseak izan ditu, aldi berean tokiko, eskualdeko, autonomia erkidegoko eta estatuko mailan gertatzen ziren estrategiak islatu dituztenak.

Lehen fasean

Politika espezifikoetan emakumeei zuzendutako ekintza positiboen bitartez pibotatzen ziren estrategia puntualagoak.

Momentu honetan

Agentziek eguneroko lanean eta, beraz, erakunde-kulturan eta zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeko duten konpromisoa berritzeko eta hobetzeko asmoa

Garapenek duela urte batzuetatik hona egin duen lana etengabekoa da berez, baina Kideitu Proiektuak ekin dion ibilbideari esker bultzada berria izan du.



>> KIDEITU





>> KIDEITU



HIRU AGENTZIA PILOTUAK

Lehenengo urratsa hiru agentzia pilotu aukeratzea izan da, bai tamainari dagokionez eta bai berdintasunaren bideari dagokionez ezberdinak. Horietako bakoitza EAEko lurralde historiko batean dago.

- Txorierriko Behargintza,
- Debegesa
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Saila

Toki-garapenerako agentziak lan-ardatz zehatz batzuetan zentratu dira. Metodologia-prozesu baten azpian dauden lan-ardatz horiek kudeatutako sistemen genero alorreko abiapuntuko egoeraren diagnostikotik hasi eta mainstreaming-ereduak, ebaluazioa barne, txertatzeko diseinu eta prozesuak ere lantzen dituzte.

Eta ikuspegi bikoitza aplikatuz:

barrurantz, mainstreamingaren estrategiak agentzien baitan txertatzeko

kanporantz, esperientzia pilotu gisa enpresak sortzeko prestakuntza eta aholkularitza zerbitzua kontuan hartuta.

Nolanahi ere, erabateko zintzotasunetik abiatuta nabarmendu beharra dago emaitza mainstreamingak praktikan kontzeptualizatuta izan duen transposizioa probatzeko lehen urratsa besterik izan ez dela. Oraindik ere landu beharreko esparruak daude, baina gutxienez aipatu lanerako oinarri sendoak finkatu ditugu.



>> KIDEITU



B. GENERO-MAINSTREAMINGA TXERTATZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK

Egindako lan prozesua



>> KIDEITU



Gure errealitatea:

- GARAPEN, agentzia guztiak biltzen dituen egitura gisa
- 3 agentzia pilotu, errealitate ezberdinekin
- Gainontzeko agentziak

Prozesua:

- . Genero-auditoretzak 3 agentzia pilotuetan, beren ondoriozko txostenekin batera.
- . Genero-mainstreaminga erakundeetan eta agentziek proposaturiko jardueretan txertatzeko oinarrizko eredua.
- . Mugapena eta agentzia bakoitzeko jardueren lehentasuna
- . Implementazioa
- . Ebaluazioa (bidean)

Aurkezten dugun ondorengo eskema eredu osoaren araberakoa da.



>> KIDEITU



Mainstreamingaren aplikazio praktikoaren eredua

Jarraian esku-hartze arruntaren estrategia aurkeztuko dugu, proiektu honetan parte hartzen duten hiru agentzia pilotuentzat planteaturikoa; bertan **gara daitezkeen programa** guztiak jasotzen dira, alde batera utzita haietariko bakoitzak jarduerak lehenesteko prozesu parte hartzailean lanerako norbanako urteko protokoloa diseinatu duen eta berau bere idiosinkrasia eta beharretara egokitu duen.

- ✓ **1. programa:** Genero-mainstreaminga txertatzeko oinarrizko baldintzak.
 - ✓ **2. programa:** Pertsonak kudeatzeko prozesuak egokitzea.
 - ✓ **3. programa:** Barne-lanerako prozedurak egokitzea.
 - ✓ **4. programa:** Esperientzia pilotua: enpresak sortzeko aholkularitza- eta formakuntza-prozesua egokitzea, berdintasunean oinarrituta.
 - ✓ **5. programa:** Ingurunean berdintasuna sortuz.
-
- ✓ **Paraleloki:** berdintasunean oinarritutako lantaldea.



>> KIDEITU



1. programa: Genero Mainstreaminga Txertatzeko Oinarrizko baldintzak

Estrategia bat sortu da, genero-berdintasuna txertatzeko orduan lan-prozesu baten baldintzak ezartzeko eta era berean egonkortasuna eta jarraipena era sistematikoan ziurtatzeko.

Aipatutako ekintzek erakundearen “barrurako” ekintzei egiten diete erreferentzia.

1. Zuzendaritzaren konpromisoak

- **Helburu orokorra:** Genero-berdintasuna txertatzeko lan-prozesu batekin lotuta baldintza onenak finkatzea, eta era sistematikoan haren egonkortasuna eta jarraipena ziurtatzea.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Zuzendaritzaren konpromisoa eta lidergoa lortzea (Kudeaketa eta Administrazio-Kontseilua) aukera-berdintasunaren aldeko lanera modu esplizituan zuzendua.*
 - ✓ *Erakundearen Urteroko Planean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-helburuak txertatzea.*
 - ✓ *Modu koordinatuan lan egitea kalitatearen kudeaketarako sistema txertatuz genero-ikuspuntua ziurtatzeko.*
 - ✓ *“Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde dagoen Erakundea” bereizgarria lortzea, Eusko Jaurlaritzak ematen duena (Emakunde).*
 - ✓ *Modu sistematikoan, genero-mainstreaminga txertatzeko prozesuaren jarraipena ziurtatzea, beharrezkoak diren giza-baliabideak, finantziazio-baliabideak eta baliabide materialekin.*



>> KIDEITU



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

1. programa: Genero Mainstreaming Txertatzeko Oinarrizko baldintzak

2. Estatistikak eta azterketak

- **Helburu orokorra:** Erakundeak egiten dituen estatistikak eta ikerketak genero-berdintasuneko irizpideei egokitzea, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun bereizgarria islatu eta ulertzeko asmoz.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Sexu aldagaiaren bilketa sistematizatzea estatistiketan, inkestetan, azterketetan eta memorietan, bai langileen artean egiten direnean, bai programa eta zerbitzuei erreferentzia egiten dietenean (kualitatiboki eta kuantitatiboki).*
 - ✓ *Sistematikoki eta modu berezian emakumeek eta gizonek parte-hartzearen eremuan duten beharren eta baldintzen analisi konparatibo eta diferentzialak egiteko behar diren datuak ustiatzea.*
 - ✓ *Beste aldagarrien eragina ezagutzeko adierazgarriak diseinatzea, sexuaz gain beste diskriminazio-moten eragina ezagutzeko.*
 - ✓ *Sexu-aldagarriaren gehikuntzari eta ustiaketa estatistikoari buruz sentsibilizazio- eta trebakuntza- ekintzak diseinatzea. Genero-gaietarako trebakuntza-plana.*



>> KIDEITU



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

1. programa: Genero Mainstreaming Txertatzeko Oinarrizko baldintzak

3. Sexu-gaietarako trebakuntza-plana

- **Helburu orokorra:** Langile gerenteak eta langile teknikariak sentsibilizatzea, trebatzea eta gaitzea, berdintasun-politikak aplikatzeko eta erakundean genero-ikuspegia txertatzeko.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Gerenteentzat sentsibilizaziorako eta trebakuntzarako plan bat diseinatu eta irakastea, berdintasunarekin zerikusia duten gaiei buruzkoa.*
 - ✓ *Teknikarientzat sentsibilizaziorako eta trebakuntzarako plan bat diseinatu eta irakastea, berdintasunarekin zerikusia duten gaiei buruzkoa.*
 - ✓ *Beste era bateko trebakuntza-ekintza aurreratuak diseinatzea generoarekin zerikusia duten gaien edukiak eguneratzeko (jadanik trebatuta dauden langileentzat edo beste trebakuntza-planetako oinarrizko trebakuntzarekin jarraitzen duten etorkizuneko ekintzetarako)*
 - ✓ *Barne-trebakuntza orokorraren planean generoaren ikuspegia sartzea.*



>> KIDEITU



3. programa: Barne-lanerako Prozedurak egokitza

Programa honek, alde batetik, estrategia berritzaile baten ikuspuntutik lan-prozesu berriak sortu, eta, bestetik, indarrean dauden prozesuak berrikusi eta hobetu nahi izan ditu.

1. Prozesu berriak ezartzea

- **Helburu orokorra:** Lan egiteko moduetan prozesu berriak ezartzea.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Esleipen-prozesuetan balorazio-prozedurak diseinatzea, kontratazioetan eta diru-laguntzetan genero-ikuspegia eta berdintasun-irizpideak kontuan hartuko dituztenak, berdintasun-legeak ezartzen duenaren arabera.*
 - ✓ *Eskaintzen diren programa eta zerbitzu guztietan genero-eraginaren aurre-ebaluazioak ezartzea, Agentziaren parte-hartzeetan sexuagatiko ezberdintasunak identifikatu eta aurreikusteko.*

Hemendik **bi produktu edo tresna** praktiko atera dira agentzien testuinguruan aplikatzeko:

- kontratu-klausulei buruzko gomendiozko dokumentu bat,
- eta generoaren eragina aldez aurretik ebaluatzeko balio duen tresna bat.



>> KIDEITU



3. programa: Barne-lanerako Prozedurak egokitza

2. Komunikazio-prozesuak

- **Helburu orokorra:** Sortzen diren dokumentu eta euskarri guztietan emakumeentzako barne- eta kanpo-komunikazio ez-diskriminatzailea bermatzea.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Lan-tresna eraginkorra diseinatzea, era sistematikoa komunikazioaren elementu guztien erabilera ez-sexista errazteko (hizkuntza, irudia eta edukiak)*
 - ✓ *Agentziaren barne- eta kanpo- komunikaziorako-tresnak erabiltzea, berdintasun-gaiei buruz eta promozio horretan egiten duen lanari buruz informatzeko, eta informazio hori zabaltzeko.*

Kasu honetan, komunikazio-prozesuak hobetzea planteatu da:

- . dagoeneko argitaratu diren tresnak hedatuz,
- . tresna horiek erabiltzeko trebakuntza eskainiz,
- . prozedura ez-sexistei buruzko etengabeko aholkularitzaren bitartez.



>> KIDEITU



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



4. programa: Esperientzia- pilotua:

mpresak sortzek
Aholkularitza-
Eta formakuntza
prozesua egokitz
Berdintasunean
Oinarrituta

Programa hau “kanpora begira” izendatutako mainstreaminga ezartzeko lan-estrategiaren esparruan txertatu da, zerbitzu bat delako. Lan handiena programa honetan oinarritu da, zerbitzuak pertsonei egokitzeko duen izaera estrategikoa dela-eta.

1. Zerbitzua planifikatzea

- **Helburu orokorra:** Aukera-berdintasunaren irizpideetan oinarrituta, zerbitzua planifikatu eta diseinatzea.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Zerbitzuaren diseinuan berdintasun-helburuak sartzea.*
 - ✓ *Kontu-ikuskaritzan genero-irizpideen arabera sailkatutako ohiko lan-tresnak egokitzea.*
 - ✓ *Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen edo erabil dezaketen pertsonen behar bereizgarriei buruz itxura kualitatiboko diagnostikoa egitea, sexuaren arabera, hausnarketa-talde edo foroetan oinarrituta, zerbitzuaren planifikazioa egokitzeko asmoz.*
 - ✓ *Zerbitzua genero-ikuspegi batetik zabaltzea, emakumeen eta gizonen ohitura ezberdinak kontuan hartuta.*



>> KIDEITU



4. programa: Esperientzia- pilotua:

enpresak sortzeko
Aholkularitza-
Eta formakuntza
prozesua egokitze
Berdintasunean
Oinarrituta

3. Ekintzailetzarako aholkularitzarako hobekuntza

- **Helburu orokorra:** Ekintzailetzarako aholkularitza diseinatzea, kultura-ekintzailea sustatzeko eta negozioak sortu eta finkatzeko genero-irizpideak jasotzen dituen.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Ekintzailearen gelari neurriak eranstea, betiere abiatze-uneke egoera bereizgarria genero-arrazoiengatik kontuan hartuz, emakumeengan ekintzaile-sena bultzatzeko asmoz.*
 - ✓ *Kultura ekintzailea sustatzeko egiten den mintegian neurriak eranstea, erabiltzaileen artean, betiere abiatze-uneke egoera bereizgarria genero-arrazoiengatik kontuan hartuta.*
 - ✓ *Ikastetxeetan kultura ekintzailea sustatzeko egiten den programan neurriak eranstea.*
 - ✓ *Emakumeengan trebetasunak eta gaitasunak sendotzeko estrategiak diseinatzea, aholkularitzak irauten duen bitartean, alderdi teknikoetatik haratago.*
 - ✓ *Ekintzaileei zuzendutako prestakuntza-ekintzen baitan, emakumeek ekiteko duten gaitasun horren sendotzea azpimarratzen duten edukiak eranstea.*
 - ✓ *Lan-prozesuak barne hartzen dituzten negozioen sorrera sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuneko irizpideetan oinarrituta.*
 - ✓ *Emakumeentzat kudeatzen diren laguntza-tresnak hobetzea, negozioa martxan jartzeko fasean enpresak sortzeari buruzkoak.*



>> KIDEITU



5. programa: Ingurunean Berdintasuna sortuz

Estrategia orokorra agentzia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bultzatzaile bihurtzea izan da, bai haien eskualdean, bai esku-hartzearen tokiko eremuan, ekintza informatzaileen, sensibilizatzaileen eta aholku-emaielen bidez inguruko hainbat erakunde aholkatuz, eremu publikoak zein enpresa-eremukoak.

1. Informatzea eta laguntzea, eskualdean berdintasuna ezartzeko.

- **Helburu orokorra:** Aukera-berdintasunerako parametroetatik abiatuta, zerbitzua planifikatu eta diseinatzea.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Inguruko enpresak informatzea eta sensibilizatzea haien erakundeak berdintasunera eta 2005eko Berdintasun Legea egokitzeari dagokionez, erakundearen eremu ezberdinetan berdintasun hori ezartzeko prozesuz prozesuko metodologiak, eskuragarri dauden diru-laguntzak eta aholkularitza zehatza emanaz.*
 - ✓ *Esplorazio-talde bat planteatzea, enpresaburuz edo zuzendaritza-karguak/erantzukizun-postuak dituzten pertsonaz osatua, funtsezko berriemaile gisa aritzeko eta enpresekin kontaktatu eta bertan sartzeko jardunbide egokienak identifikatzeko.*



>> KIDEITU



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

5. programa: Ingurunean Berdintasuna sortuz

- ✓ *Esperientzia pilotu bati ekitea, enpresak bisitatuz, hainbat prozesutan berdintasuna ezartzen laguntzen duten zerbitzuak eskaintzeko.*
- ✓ *Txorierrri Agentziako Administrazio Kontseiluan parte hartzen duten eskualdeko udalen foro bat sortzea, horrela agentziak berak udalek 2005eko Berdintasun Legea egokitzeko prozesua dinamiza dezan, “toki-garapen eta berdintasun” ikuspegitik.*
- ✓ *Web orria martxan jartzeko eta mantentzeko, foroak martxan jartzeko, udalei eta enpresei aholkularitza eskaintzeko, inguruko enpresekin esperientzia pilotua egiteko, etab. beharrezko baliabideak identifikatzea.*



>> KIDEITU



Berdintasuneko lantalde

Mainstreamingaren inguruko protokoloak garatu eta ezartzearekin batera, **berdintasuneko lantalde bat** sortu da. Azken horren helburua agentzietan parte hartzen duten agenteak mobilizatzea izan da, berdintasunari dagokionez martxan dauden ekimen ezberdinen elkartrukerako, aberastasunerako eta lidergorako etengabeko gunea sortzeko eta sustatzeko.

- **Helburu orokorra:** Agentzietako langile teknikoen topaketarako foro bat sortzea, Garapeni lotuta dauden toki-garapeneko agentzietan genero-politiken aplikazioa ahalbidetzen eta sustatzen duten estrategien diseinuaren eta aplikazioari buruzko hausnarketarako eta trebakuntzarako.
- **Helburu operatiboak:**
 - ✓ *Agentzien betebeharrei dagokienez genero-ikuspegiaren aplikazioari buruz hausnartzea.*
 - ✓ *Pertsonal teknikaria aukera berdintasunaren sustapenerako politikak eta estrategiak aplikatzeko sentsibilizatzea, prestatzea, trebatzea eta aholkatzea, horretarako baliabideak eta ezagutzak eskainiz.*
 - ✓ *Genero-gaiei buruzko esperientziak, ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko.*
 - ✓ *Lan egonkorreko barneko egiturak, berdintasunaren aldeko lana sustatuko dutenak, sortzea, ekintza transformatzailea ahalbidetuz eta aipatu horiek sarearen orokortasunaren baitan nabarmenduz.*



>> KIDEITU



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



C. PROIEKTUAREN ONDORIOZKO PRODUKTUAK

PROIEKTUAREN ONDORIOZKO PRODUKTUAK



>> KIDEITU



- **Agentzietan diagnostiko/auditoretza bat egiteko lan-tresnak:** genero-auditoretza bat nola mantendu zehazten duten material metodologikoak dira. Elkarriketen, galdetegien... gidoiak barne hartzen ditu.
- **Genero-mainstreaminga erakundeetan txertatzeko oinarritzko eredua:** laneko plana txertatzeko protokoloen diseinua zuzentzen duen erreferentziatzko dokumentua.
- **Material didaktikoak:** Berdintasunerako politikak sustatzeko eta aplikatzeko estrategiak; Agentziak berdintasuna inguruan txertatzeko sustatzaile gisa; Bateragarritasunari buruzko mintegia; Hizkuntzari buruzko mintegia,...
- **Genero arloan prestakuntzako premiak antzemateko diseinu metodologikoa:** proposamen metodologikoa eta galdetegia.
- **Kontratazio klausulen gomendioei buruzko dokumentua:** esleipen prozesuak, berdintasun klausulak barne, berrikusi dira.



>> KIDEITU



PROIEKTUAREN ONDORIOZKO PRODUKTUAK

- Genero-eraginaren aurretiko ebaluaziorako dokumentu gida: agentzien funtzionamendura egokitutako lan-tresna
- Agentzietako langileentzako bateragarritasun-plana egiteko lan-tresnak: beharrak antzemateko galdeketa, plana egiteko proposamen metodologikoa,...
- Emakume ekintzaileen premiak antzemateko foroak antolatzeke lan-tresna metodologikoak: lan-fitxak, material metodologikoak, galdeketa,...
- Gaitasun ekintzaileen sustapenerako ekintzak antolatzeke lan-tresna metodologikoak: lan-fitxak, material metodologikoak, galdeketa,...
- Genero-ikuspegia gure ebaluazioetan txertatzeko oinarrizko gida



>> KIDEITU



D. LORPENAK ETA MAINSTREAMINGAREN APLIKAZIOAREN JARRAIPENA TOKI-GARAPENEN AGENTZIAN



>> KIDEITU



LORPENAK

➤ Proiektuari esker etorkizunean ekintza mota hauek modu egonkorrean eta ikuspegi integral eta zeharkako batetik garatzeko baldintzak ezarri ahal izan ditugu. Lan estrategia hauei jarraitasuna ematea erronka bat zein etengabe aldatzeko eta hobetzeko aukera da Agentzientzat.

➤ Proiektuaren beste lorpenetako bat **probatutako metodologia** izan da, planteamendu praktiko eta fokalizatu baten bitartez bere baliotasuna erakutsi duena; berau agentzia guztien errealitate berezituetan oinarritu da eta eredu eta ikuspegi estrategiko eta bateratua garatzea ahalbidetu du, gero transferitu ahalko dena. Egia esateko, dagoeneko transferitzen ari da.

➤ **Agentzia guztientzako komuna den laneko sare paraleloa sortzeak**, hiru pilotuez gain, berdintasun politiken aplikaziorako abantaila extra batzuk eragin ditu:

- Baliabideen aprobetxamendu hobea eta toki-garapeneko errendimendu handiagoa.
- Egitura eta laneko dinamika egonkorren sorkuntzaren bitartez dagoeneko martxan dauden laneko sinergien formalizazioa.
- Efektu biderkatzailea, esperientzia pilotua eta metodologiaren estandarizaziorako mekanismoa den neurrian.



>> KIDEITU



EUROPA BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

LORPENAK

Laburbilduz, Equal Kideituen exekuzioaren azken bi urteotan, neurri handi batean, oinarritzko baldintzak finkatu dira genero-mainstreaminga proiektuan esperientzia pilotu gisa parte hartu duten agentzien arteko hirutan txertatzeko. Era berean, beste agentzia guztiei transferentzia egiteko baldintzak zehaztu dira, metodologiaren sistematizazioaren eta lan-tresnen garapenaren bitartez.



>> KIDEITU



MUGAK ETA ERRONKAK

- Lehendabiziko muga proiektuaren garapenaren **jarraikortasun gabezia** eta erakunde bakoitzeko **lidergo desberdina** izan da. Beste hitz batzuetan, finantza-eta giza-baliabideekin eta partaidetza ezberdinekin lotuta egon da, prozesu bereiztuen adierazgarri gisa.
- Argi dagoen bete mugetako bat inplikaturiko agentziak osatzen ditugun pertsonok genero-harremanen inguruan genuen **ulermen eta ezagutza sakonaren gabezia** izan da.

Erronkak:

- Erakundea osatzen duten pertsonen ordutegiak eta lekuak prestatzea.
- Maila metodologikoan, gai izan behar dugu inplikaziozko dinamika arrakastatsuagoak eragiteko.
- Dagoeneko existitzen diren lan-tresnak eta metodologiak behar bezala sistematizatuak eta transferituak izan daitezela, eta agentziek mainstreaminga teoriaraino zein praktikan onar dezatela lortzea.
- Toki-Garapenerako Agentzien esku-hartzetik abiatuta aukera berdintasuna sustatzen duen lantaldea finkatzea eta aurrera eramatea.



>> KIDEITU



ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIA

Garapen-ek jarduera hauei guztiei estaldura emateko konpromisoa hartu du, eta genero-berdintasuneko lantaldeak aurrera jarraituko duela ziurtatu du. Era berean, erakundeetako teknikariei zuzendutako prestakuntzako ekintzak diseinatuko ditu eta bereganatutako ezagutzak eta sortutako lan-tresnak eta metodologiak transferituko ditu.

Gure aldetik, **3 agentzia pilotuok** zintzilik dauzkagun jarduerekin amaitzeko konpromisoa hartu dugu eta genero-brdintasuna txertatuko dugu gure erakundeetako etengabeko hobekuntza sistemetan, kalitate faktore gisa, eta baita gure plan estrategikoetan eta urteko kudeaketa planetan ere.

Txorierriko Behargintzak, zuzendaritzaren inplikazioa duenak eta Administrazio Kontseilura lekualdatuko denak, 2008ri begira, aurrekontuaren atal bat erreserbatu du programaren garapenerako, eta aukera-berdintasuneko prestakuntza jaso duten langileen kontratazioa erraztuko du bere aurrekontuarekin. Era berean, eskualdeko berdintasunaren sustatzailea izan nahi du, eta horretarako eskualdeko udal ezberdinekin batera lan egingo du.



>> KIDEITU



ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIA

Debegesak ikasitakoa aplikatuko du enpresan txertatutako Berdintasun Planean, 2008an ere indarrean jarraituko duenean. Gainera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta agentziaren paperaren inguruan prestatuko eta sentsibilizatuko ditu langileak.

Ekonomia Sustapenerako Saila, Vitoria-Gasteizko Udalekoa, momentu honetan Ekintza Positiboko II Plana diseinatzen ari da Berdintasun Zerbitzuarekin batera. Bertan, Debegesak ere egingo duen bezala, ikasitako guztia aplikatzen ahaleginduko gara. Urtariletik aurrera Berdintasuneko Agente bat izateko asmoa dugu.